

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure proiektua aurrera eramateko, funtzio hauek garrantzitsuak dira:

- Bezeroen **beharrizanak asetzen** saiatuko gara une oro; horretarako beraien **gabezi funtzionalak aztertuko** ditugu sakontasunez, eta egokitutako zerbitzua emango dugu.
- Zerbitzu bikaina eskaintzeko, merkatuko **azkekengo teknologiak erabiliko** ditugu, eta merkatuan eguneratuta egoteko Rehatrans (Moldaketa eskola) konpainiako **formakuntza jasoko dugu**.
- Beste **enprekin lan-harremanetan** egotea, enpresak funtzionamendu onenean lan egiteko. Adibidez, **Inser Robótica**, S.Ak, gure diseinuen robotika fabrikazio-lan konplexuak ekoiztuko dituzte.
- Merkatuaren ikuspegi zabal bat izatea, produktuak **prezio-kalitate onenean** lortzeko. Ikuspegi hori edukitzeko, beharrezkoa da autonomia-mugikortasunaren azoketara joango gara (**Activa T azoka**). Bertan enpresa desberdinak eskaintzen dituzten zerbitzuak erakusten dira, horrekin **enpresa desbedinen arteko elkarlana** sortzen da.
- Bezeroari **beharrezko informazioa** eskainiko dion web orria eskaintzea



Honekin batera, enpresa guztiek bezala, **etorkizun plan batzuk** finkatu ditugu;

- EPE LABURREKO ETORKIZUN PLANAK

- Salmentak % 10 hobetzea datozen 6 hilabeteetan.
- Online kanaletan ikusgarritasuna hobetzea.
- Bezeroak fidelizatzeko estrategia hobetzea.
- Bezeroarentzako arreta-zerbitzua hobetzea.
- Gure ohiko bezeroen gustuak eta lehentasunak ezagutzea.

- EPE LUZERAKO ETORKIZUN PLANAK

- Espainia mailan sektoreko enpresarik garrantzitsuena izatea.
- Formakuntza ikastaroak eskaintzea espainia mailan.
- Gure enpresa beste hainbat herrialdetara zabaltzea.
- Lanpostu egonkorrak sortzea enpresa dagoen tokian eta inguruan bizi diren pertsonentzat.
- Emakumeen eta ez-gaituen enplegua sustatzea sektore honetan.
- Ahalik eta gehien enpresan inbertitzea; horrela tailerra handitzea, eta salmentak urtero handitzea.